

Urola Garaia eskualdeko plan energetikoa

UGGASA

2016ko azaroa



AGIRIAREN IDAZKETA

AIZKORPE, KOOP. ELK

- Jorge Gómez
- Iker Maya
- Mikel Uranga
- Ainhoa Tapia
- Fernando Bengoetxean – EKAIN TALDEA, S.L.

ESKER ONAK

0.1. Udaletxeen eta beste erakunde publiko batzuen ordezkariak:

- Ainhoa Barbancho
- Inma Hernandez
- Alonso Frances
- Amaia Lizarralde
- Estibaliz Igartua
- Iñaki Puga

0.2. Beste erakunde batzuk:

- Itziar Salaberria – UGGASA
- Iosune Telleria – UGGASA
- Josune Makaia – UGGASA
- Xabier Txurruka – UGLE
- Xabier Salaberria – UGLE
- Agate Goyarrola – UDALSAREA21

ÍNDICE

ACRÓNIMOS	4
1 INTRODUCCIÓN	¡Error! Marcador no definido.
1.1 MARCO GENERAL	6
1.2 PLAN ENERGÉTICO COMARCAL	¡Error! Marcador no definido.
2 INVENTARIO DE EMISIONES	8
2.1 METODOLOGÍA	8
2.2 EVALUACIÓN DE LOS CONSUMOS Y EMISIONES DE GEI DE LA COMARCA	14
3 CAPACIDAD SUMIDERO DE LA MASA VEGETAL DEL TÉRMINO MUNICIPAL	30
4 BALANCE NETO DE CARBONO DEL MUNICIPIO DE COMARCA DEL ALTO UROLA	32
5 ESTRATEGIA DE REDUCCIÓN Y ÁMBITO DE ACTUACIÓN	33
5.1 ÁMBITO DE ACTUACIÓN DEL PEC	33
5.2 OBJETIVOS DEL PEC	33
6 PLAN DE ACCIÓN	34
6.1 ESTRUCTURA DEL PLAN DE ACCIÓN	34
6.2 ACCIONES	38
6.3 RESUMEN DEL PLAN DE ACCIÓN	92
ANEXO I	¡Error! Marcador no definido.
ANEXO II	94

AKRONIMOAK

EPE: ESKUALDEKO PLAN ENERGETIKOA

NEG: NEGUTEGI EFEKTUKO GASAK

EEE: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

IDAE: ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTOA

ACS: UR BERO

KIT: KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIA

EE: ENERGIA ELEKTRIKOA

GN: GAS NATURALA

GL: GASOILA

PR: PROPANOA

BIO: BIOMASA

GFA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DGTREN: EUROPAR KOMISIOKO ENERGIA ZUZENDARITZA OROKORRA

1 SARRERA

1.1 ESPARRU OROKORRA

IPCCaren bosgarren txostenak, *Climate Change 2013: the Physical Science Basis* (Klima aldaketa 2013: Zientzia fisikoaren oinarriak, I. Lan Taldearen lehenengo kapituloa), sistema klimatiko globalaren berokuntzaren inguruko ondorio garbiak aurkezten ditu inongo zalantzarik gabe. %95eko ziurtasunarekin, giza aktibitatea aurkezten du XX. mende erditik aurrera klima aldaketaren kausa nagusitzat.

1950. urteaz geroztik, azken milurtekoetan ikusi ez diren aldaketak antzeman dira sistema klimatiko guztian, sistemaren berokuntza zalantzarik gabe baieztatuaz txostenak. Azken hiru hamarkadetako bakoitza hurrenez hurren aurrekoa baina beroagoa izan da, eta gainera 1850a geroztik ez da hamarkada beroagorik izan.

Industriak, etxebizitza alorrak, nekazaritzak eta beste hainbat alorrek azken urteetan eragindako negutegi efektuko gasen kontzentrazioa etengabe igo da azken urteetan, besteak beste Karbono dioxidoa (CO_2), metanoa (CH_4) eta oxido nitrosoa (N_2O). 2016 urtean mundo mailan, 440 miloiko parteko muga sinbolikoa lortu duelarik urte guztian zehar. Munduko Metereologo Elkarteak (MME) jada errealitate klimatikoaren “aro berri” baten aurrean gaudela uste du, non belaunaldi ugartan zehar CO_2 kontzentrazioa 440 ppm-ko mugatik gora egongo den.

Biodibertsitate behatokiaren (OS) txostenak ondorioztatutakoaren arabera, Espainiak ez ditu burutu negutegi efektuko gasen (NEG) isuriak behar bezala murrizteko nahikoa ekintza. Izan ere, 1990 urteko 100 faktoretik 115era pasa da, Europaren kasuan ordea, epe berean 100etik 77ra pasa da.

Euskal Autonomi Erkidegoan, arazoaren konsziente izanik, “Euskadiko Energia Estrategia 2030” jarri dute abian. Eredu sozioekonomikoaren eboluzio progresiboa bilatzen du, gehienbat industria, etxebizitza eta garraio arloan, kontsumo energetiko murriztagoko eredu baten bila, energia berriztagarrietan oinarrituaz kontsumo hauek, energia elektrikoa bektorre energetiko nagusia delarik. Epe luzeko helburu bezala 2050 urterako petrolio eta erregai fosilen erabilpena energia alorretik baztertzea nahi da, mende amaierarako NEG isuri netoa zero bilakatuaz eta 2050 urterako %80 murriztuaz 2005 urtearekin alderatuz gero.

Zentzu hontan, Urola Garaiko eskualdea ere aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan dabil, NEG isuriak murrizteko, bizi kalitatea hobetu eta biztanleriko sektore desberdinak arazoaren inguruan kontzientziatzeko helburuarekin.

1.2 ESKUALDEKO PLAN ENERGETIKOA

Txosten honen idazketarako prozedura erreferentzia bezala Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana raginkortasun Energetikorako Ekintza Plana erabili da (EIEP). EIEPa 2008 urtean Europar Komisioko Energiaren Zuzendaritza Orokorrak (DGTREN) sortutako ekimena da, honen oinarria Komisioren “20/20/20” estrategia da, non Europar Batasunak udalerrien esku uzten dituen aldaketa klimatikoaren aurkako gobernu ekintzak.

EIEP-aren idazlanaren bidez udalerri eta eskualdeak 2020rako CO₂ emisioak gutxienez %20ean murriztera konprometitzen dira beraien lurraldean, hortarako ekintza planak ondorengo atalak izan behar ditu:

- **Emisioen inbentarioa**, eskualdeko eta udalerriko planifikazioa energetikoa gauzatzeko oinarria da kontsumo energetiko nagusiak eta hauen emisioak ezagutzea.
- **Diagnosi energetikoa**, udalerrietako eta eskualdeko emisioen inbentarioan eta fluxu energetikoetan oinarrituaz energía kontsumitzaile eta negutegi efektuko gasen (NEG) sortzaile nagusiak diren sektore eta jarduerak identifikatzen dira. Honela, energía mailan zein aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan murrizketa handiena duten ekintza alorrak identifikatzen dira.
- **Ekintza plana**, NEG-k murrizteko helburua aurrera eramateko gauzatu beharreko ekintzak biltzen ditu. Ekintza bakoitzarekin inplementatzean lortuko zen emisioen murrizketa kalkulua, gutxi gorabeherako inbertsioa, inplikaturako agenteak eta inplementazio egutegiaren aurreikuspena gauzatzen dira.
- **Jarraipena**. Ekintzen inplementazio zuzena zihurtatzeko eta kontsumoen eta NEG emisioen eboluzioa ebaluatzeko helburuarekin ekintza planaren betetze maila neurtzeko indikadore batzuk definitzen dira.
- **Parte-hartzea**. Eskualdeko Plan Energetikoaren garapena prozesu demokratiko eta garden bat dela bermatzeko parte-hartze prozesu bat izan behar du. Prozesuak udal langileen barne parte-hartzea eta herritarrei irekitako kanpo parte-hartze izan behar ditu.
- **Komunikazioa**. Eskualdeko Plan Energetikoaren baitan, ahal den parte-hartze handiena lortzeko eta proiektua ezagutarazteko, proposamen sorta bat inorporatzen da.

Eusko Jaurlaritzak bere aldetik “Euskal Autonomia Erkideko Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoari Buruzko Legearen Anteproiektua” onartu du eraginkortasun energetikoa, aurrezpen energetikoa eta energia berriztagarrien inplantazioa bultzatzeko neurriekin. Autonomi Erkidegoan, Euskal Administrazio Publikoko politika energetikoaren nondik norakoak eta betebeharrak finkatzen ditu, papel eredugarri baten inplikazioarekin. Lege aurreproiektu honek 2025erako %25eko energía kontsumo murrizketa markatzen du helburutzat, hau bera izanik planaren xedea ere.

2 EMISIO INBENTARIOA

2.1 METODOLOGIA

2.1.1 HELBURUA, HEDADURA ETA LAN FASEAK


Inbentarioaren helburua Urola Garaiko udalerrien kontsumo eta negutegi efektuko gasen (NEG) iturri nagusiak identifikatzea da, egungo egoera ezagutzeko. Behin hau eginda udalen marko kompetentziala eta exekutiboa finkatzen dira NEG emisioen murrizketan, eskualde mailan eraginkortasun energetikoaren hobekuntzan eta energia berriztagarrien sustapenean.

Honela, lan hau eskualdeko udalerrien planifikazio energetikoa gauzatzeko oinarria izango da, behintzat 2020rako Europaren helburuak betetzeko, nahiz eta kasu hontan 2025erako energiaren %25 murrizteko helburua finkatu den.

Inbentario honen hedaduraren barruan 2011 eta 2015 urteen arteko datuak daude, biak barne, helburua kalkulatzeko oinarrizko urte bezala 2011 urtea hartzen delarik. Zentzu hontan emisioen gora beheren azterketa 2011 eta 2015 urteen artean egiten da ere.

Ondoren Urola Garaiko udalerrien NEG emisioen inbentarioa egiteko orduan igarotako lan faseen eskema aurkezten da.

1. Irudia: Emisioen ebaluaketa egiteko erabilitako metodologia



- Inbentarioa gauzatzeko beharrezko **datu eta informazio bilketa** eskualdeko udaletxeen laguntzarekin egin da, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga. Hauek udal datuak eskuragarri jarri dituzte aztertutako bariabiletan eskumenak dituzten beste erakunde batzuekin batera (Iberdrola distribuzioa, Edp, Udalsarea...).
- **Emisioen ebaluaketari** dagokionez, hau 2 esparru nagusitan banatzen da egindako azterketaren hedaduraren arabera:

1. **Eskualde-udalerri esparrua:** Eskualde eta udalerrietako funtzionamendu fluxuetatik eratorritako kontsumo energetikoen eta hauen ondorioz sorturiko NEG emisioen azterketa egiten da, eratzten duten sektore ekonomiko guztiak barneratuaz. Udalerri esparruan ez dira kontutan hartzen industria eta lehen sektorea nahiz eta isuriak ebaluatzeko orduan irudikatu diren.


Zentzu hontan Euskadiko 3E2030 energia plan estrategikoak industriako energia konpetibitatea eta jasagarritasuna hobetzeko lan ildoen arduradun ondorengoak finkatzen ditu:

- Ekonomiaren Garapen eta Konpetitibitate Saila.
- Industria eta Energia Sailburuordetza Zerga eta Finantza Sailaren kolaborazioarekin.
- Foru Aldundiak.

Beraz, plan honen barnean ez daude arlo hauetan bultzatzeko ekimenak.

2. **Udal esparrua:** Udalerriak dinamizatzeko erabilitako eta kudeatutako zerbitzu eta instalakuntza desberdinen kontsumo energetikoen eta hauek sortutako isurien kalkulua egiten da.
- Datuen tratamendu eta azterketa udalerrien isurien inbentarioa gauzatzeko software baten bidez egin da, "Udalsarea21ek udalerrien CO₂ isuriak kalkulatzeko herraminta informatikoa" oinarritzat erabiliaz

2. Irudia: EPEk eragindako esparruak



2.1.2 EMISIO FAKTOREAK

Behin kontsumo guztiak bilduta, udalerriek eskualdean sortzen dituzten isuriaren kalkulua egiteko energia iturri desberdinen isuri faktoreak erabiltzen dira. Zentzu honetan, erabili diren isuri faktoreak “Udalsarea21ek udalerrien CO₂ isuriak kalkulatzeko herraminta informatikoa”-n agertzen direnak dira, berokuntza potentzialak Klima Aldaketa Panel Intergubernalak (IPCC) 2007ko 4. txostenaren argitaratutakoak dira. Honen arabera metanoak CO₂ak baino 21 aldiz berokuntza potentzial handiagoa du eta oxido nitrosoak 310 aldiz handiagoa CO₂a baino, balio hauek “Udalsarea21ek udalerrien CO₂ isuriak kalkulatzeko herraminta informatikoa”-n erabilitakoen berdinak dira.

$$1 \text{ CO}_2\text{eq.} = 1 \text{ CO}_2 + 21 \text{ CH}_4 + 310 \text{ N}_2\text{O}$$

1. taula: Isuri faktoreak energia iturri desberdinentzat

ISURI ITURRIA	ISURI FAKTORE ITURRIA	ERABILITAKO ISURI FAKTOREAK	
Elektrizitatea	Sorkuntza elektriko mix-a, Udalsarea 21 eta Espainiako Gobernuak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurugiro Ministeriotik eskuratuak	Urtea	Kg CO ₂ /kWh
		2.009	0,37177
		2.010	0,36178
		2.011	0,34112
		2.012	0,3546
		2.013	0,1691
		2.014	0,37
		2.015	0,40
Gas Naturala	Udalsarea21ek udalerrien CO ₂ isuriak kalkulatzeko harraminta informatikoa	0,202 kg CO ₂ /kWh	
Petroliotik likuatutako gasak		0,227 kg CO ₂ /kWh	
Gasoleoa		0,267 kg CO ₂ /kWh	
Gasolina		0,260 kg CO ₂ /kWh	
Propanoa		0,279 kg CO ₂ /kWh	
Butanoa		0,279 kg CO ₂ /kWh	
Biodiesela		0,279 kg CO ₂ /kWh	
Hondakinak	Udalsarea21ek udalerrien CO ₂ isuriak kalkulatzeko harraminta informatikoa	0,39 t CO ₂ /t RM (Errausgailua)	
		1,53 kg CO ₂ /t RM (Zabortegia)	

2.1.3 INFORMAZIO ITURRIAK

Inbentarioa egin ahal izateko beharrezko datu eta informazioa eta honen iturria ondoren zerrendatzen dira:

- **Eskualdeko udalerrietako energia elektriko eta gas natural kontsumoa.** Energia kontsumo hauek eskualdeko distribuidora desberdinek (IBERDROLA eta EDP) erreztutako datuetan oinarritzen dira, Udalsarea21-ek eskuragarri jarritako datuekin baieztatuak.
- **Petroliotik likuatutako gasak, gasoleo, gasolina eta fueloil kontsumoak.** Kontsumo hauek EEE “Euskadi Energia 2014” argitaratutako txosten estadistikoko datuetan oinarritzen dira. Datuak kalkulatzeko probintzi mailako kontsumoetan oinarritu gara eta biztanleria eta parke mobilaren datuetan oinarrituaz ponderatu dira.
- **Eskualdeko udalerriek ekoitzitako energia berriztagarria.** Eusko Jaurlaritzako Zerga eta Finantzia departamentuko Udalmap udal informazio sistematik lortu dira datuak.
- **Udal sektoreko energia kontsumoak** (udal ekipamenduak, argiztapen publikoak, ibilgailu propioen flota). Udalak gure esku jarritako datuak.
- **Bestelako datuak.** Biztanleria datuak eta udalerriko parke mobil datuak Eusko Jaurlaritzako Zerga eta Finantzia departamentuko Udalmap udal informazio sistematik lortu dira datuak.

2.2 ESKUALDEKO KONTSUMOEN ETA NEG ISURIEN EBOLUZIOA

NEG isurien inbentarioan lehen azterketa alorra, metodologia atalean azaltzen den bezala, **eskualdeko eta udalerrietako NEG erabateko isuri**en deskribapenari egiten die adiera. Zentzu honetan, kontsumo energetikoen eta hauei loturiko isurien deskribapena egiten da udalerrietako eta eskualdeko aktibitate sektore bakoitzeko.

Kontutan izan behar da atal honetako datu batzuk ponderazioen kalkuluetan oinarritzen direla aurreko atalean azaldu bezala.

Era berean, sektore bakoitzeko energia kontsumitzen duten elementuen ezaugarrien eta egungo egoera energetikoen arteko erlazioa ebaluatuko da.

2.2.1 ERABATEKO KONTSUMOA ETA NEG ISURIA ESKUALDEAN ENERGIA ITURRI ETA ZERBITZUKO

ERABATEKO KONTSUMOA ESKUALDEAN ENERGIA ITURRIKO

Inplikaturiko sektore guztiak kontutan izanez gero, energia elektrikoa da eskualdeko energia iturri nagusia, eskualdeko kontsumo energetiko osoaren %44,85eko pisuarekin. Hurrengoak gas naturala eta erregai likidoak dira 2015eko kontsumoen %28,2 eta %23,1 portzentaiekin hurrenez hurren, gehienbat industriaren, garraio sektorearen eta auto pribatuaren erabilpen handiaren eraginez.

2011-2015 urteen artean kontsumo energetikoa %1,5ean jetsi da gehienbat kontsumo elektrikoaren murrizketarengatik.


Azterketa epealdian ikus daitekeen bezala kontsumo energetikoak egonkor mantentzen dira gutxi gora-behera, krisiaren eraginez sorturiko oszilazio txikiekin. Epe hontan gas natural kontsumoa igo egiten da %4,4ean eta gainontzeko energi iturriek jetsiera ahula dute.

2. taula: Eskualdeko kontsumo energetikoen eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektorea barne (MWh)


	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	
Ikatz eta derib. / Carbón y deriv.	5.772	0,4	5.488	0,4	4.259	0,3	4.833	0,3	4.637	0,3	-19,7%
Petrolio eta der. / Petróleo y deriv.	334.671	22,7	334.583	23,6	332.926	24,4	328.747	23,3	336.027	23,1	0,4%
Gas naturala / Gas natural	393.041	26,7	383.799	27,0	354.639	26,0	382.836	27,1	410.359	28,3	4,4%
E. eratorriak / E. derivadas	217	0,0	216	0,0	215	0,0	214	0,0	213	0,0	-2,0%
E. berriztagarriak / E. renovables	54.426	3,7	53.755	3,8	46.295	3,4	52.175	3,7	49.645	3,4	-8,8%
E. elektrikoa / E. eléctrica	686.073	46,5	642.142	45,2	624.160	45,8	641.852	45,5	651.208	44,8	-5,1%
Guztira / Total	1.474.200	100	1.419.982	100	1.362.495	100	1.410.657	100	1.452.089	100	-1,5%

Iturria: EEEaren datuen extrapolaketan eta Iberdrola eta EDP distribuidoren datu errealetan oinarritua.

1. grafikoa: Erabateko kontsumo energetikoen eboluzioa eskualdean energia iturriko



2. grafikoa: Eskualdeko erabateko energia kontsumoaren eboluzioa



3. taulan industriako eta lehen sektoreko kontsumoak ez dira izan kontutan zehaztasun handiagoarekin aztertzeke udalerritik eratorritako kontsumoak.

3. taula: Eskualdeko kontsumo energetikoen eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektorerik gabe (MWh)


	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11- 15
	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	
Petrolioia eta der. / Petróleo y deriv.	297.823	66,2	299.410	64,9	304.358	66,1	298.896	66,5	306.334	66,8	2,9%
Gas naturala / Gas natural	68.835	15,3	76.521	16,6	74.965	16,3	70.420	15,7	74.669	16,3	8,5%
E. berriztagarriak / E. renovables	22.612	5,0	22.945	5,0	16.565	3,6	16.209	3,6	15.868	3,5	-29,8%
E. elektrikoa / E. eléctrica	60.875	13,5	62.427	13,5	64.398	14,0	63.792	14,2	61.510	13,4	1,0%
Guztira / Total	450.145	100,0	461.304	100,0	460.286	100,0	449.316	100,0	458.381	100,0	1,8%

Iturria: EEEaren datuen extrapolaketan eta Iberdrola eta EDP distribuidoren datu errealetan oinarritua.


Ondorengo taulan kontsumo energetikoen murrizketa esanguratsua antzematen da energia iturri desberdinetan, petrolioaren eratorrietan izan ezik, garraio sektoretik eta kotxe pribatuaren erabilpenetik eratorria. Energia murrizketa orokorra industria sektoreak markatu du, Urola Garaiko eskualdean duen pisu handiaren eraginez.

Honela, energia iturri nagusia petroliotik eratorritako erregai likidoetan oinarritzen da %66,8an gas naturalak eta elektrizitateak jarraitua %16,3 eta %13,4arekin hurrenez hurren.

4. grafikoa: Erabateko kontsumo energetikoen eboluzioa eskualdean energia iturriko industria eta lehen sektore gabe



4. grafikoa: Eskualdeko erabateko energia kontsumoaren eboluzioa industria eta lehen sektore gabe



2011-2015 urteetako energia kontsumoaren banaketa aztertuz gero, energia desberdinen eboluzioa nahikoa konstantea izan dela ikus liteke. 2015. urtean petroliotik eratorritako energien kontsumoak igoera izan duela ikus liteke, energia honen prezioaren jetsieraren ondorioz.

NEG ISURIA ESKUALDEAN ENERGIA ITURRIKO

2011 eta 2015 urteen artean isuriaren iturri nagusia energia elektrikoa izan da (2015ean eskualdeko isuriaren %60a suposatzen duen gutxi gorabehera eta aztertutako garaian %11,3ko igoerarekin), jarraian erregai likidoak (gasoila, gasolina eta fueloila) isuriaren %20arekin eta oso gertu gas naturalak jarraitzen du %19arekin.

Orokorrean NEG isuriak %7 igo dira eskualdean 2011-2015 urte tartean. Igoera hau 2014 urtetik aurrera energia elektrikoa ekoizteko sortutako isuriaren ondorioz eta krisi ondorengo errehabilitazio ekonomikoak utzitako mix elektrikoaren faktoreetan du arrazoia.


Aipatu beharra dago NEG isuri faktorea energia elektrikoaren kasuan urtero aldatzen dela, ekoizpen elektrikoaren mix-aren arabera. Mix energetikoa estatuko energia elektrikoaren eskaria betetzeko erabiltako energia iturri desberdinen konbinazioaren arabera da, ekoizpen iturrien arabera. Horregatik, energia elektrikoaren kontsumo bera izan arren NEG isuriak aldatu egin litezke energiahau ekoizteko erabiltako iturrien arabera.

Hurrengo taulan Urola Garaiko eskualdean kontsumo energetikoen ondorioz eratorritako isuriak erakusten dira.


4. taula: Eskualdeko NEG isuriaren eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektorea barne (tonelada)

	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%	
Ikatza eta derib. / Carbón y deriv.	2.725	0,7	2.590	0,7	2.010	0,5	2.281	0,6	2.189	0,5	-19,7%
Petrolioia eta der. / Petróleo y deriv.	87.014	21,6	86.992	22,0	86.561	22,5	85.474	21,2	87.367	20,2	0,4%
Gas naturala / Gas natural	79.394	19,7	77.527	19,6	71.637	18,6	77.333	19,2	82.892	19,1	4,4%
E. eratorriak / E. derivadas	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0,0%
E. berriztagarriak / E. renovables	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0,0%
E. elektrikoa / E. eléctrica	234.033	58,0	227.703	57,7	224.698	58,4	237.485	59,0	260.483	60,2	11,3%
Guztira / Total	403.166	100	394.813	100	384.906	100	402.573	100	432.931	100	7,4%

Iturria: EEEaren datuen extrapolaketan eta Iberdrola eta EDP distribuidoren datu errealetan oinarritua.

5. grafikoa: Eskualdeko NEG isuriaren eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektorea barne (tonelada)


6. grafikoa: Eskualdeko NEG erabateko isuriaren eboluzio, industria eta lehen sektorea barne (tonelada)




5. taulan industria eta lehen sektoreko kontsumoak baztertzen dira udalerriaren NEG isuriak zehaztapen gehiagorekin aztertzeko.

5. taula: Eskualdeko NEG isuriaren eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektore gabe (tonelada)


	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%	
Petrolioa eta der. / Petróleo y deriv.	77.434	69,1	77.847	67,4	79.133	67,4	77.713	67,3	79.647	66,7	2,9%
Gas naturala / Gas natural	13.905	12,4	15.457	13,4	15.143	12,9	14.225	12,3	15.083	12,6	8,5%
E. berriztagarriak / E. renovables	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0,0%
E. elektrikoa / E. eléctrica	20.766	18,5	22.137	19,2	23.183	19,7	23.603	20,4	24.604	20,6	18,5%
Guztira / Total	112.104	100	115.441	100	117.459	100	115.541	100	119.334	100	6,4%

Iturria: EEEaren datuen extrapolaketan eta Iberdrola eta EDP distribuidoren datu errealetan oinarritua.

7. grafikoa: Eskualdeko NEG isuriaren eboluzioa energia iturriko, industria eta lehen sektore gabe (tonelada)



8. grafikoa: Eskualdeko NEG erabateko isuriaren eboluzioa, industria eta lehen sektorea gabe (tonelada)



Lehenago aipatu bezala industriak pisu handia duela ikus liteke, bai energia kontsumoan zein hauetatik eratorritako NEG isurian. Udalerrien NEG isuriak aztertuz gero, isuri iturri nagusia erregai likidoena da (gasoila, gasolina eta fueloila), petrolio eratorriena %66arekin, hau garraio sektorearen

eta kotxe pribatuaren erabilpen handiaren ondorioz da. Hurrengo iturria elektrizitatea da 2015 urteko isurien %20arekin. Eskualdean isuriek %6ko igoera izan dute aztertutako epealdian, kontsumo elektrikoaren igoeraren eta ekoizpen elektrikoaren mix-aren emisio faktorearen igoeraren ondorioz.

ESKUALDEKO ERABATEKO KONTSUMOA SEKTOREKA

Jarraian Urola Garaia eskualdeko sektore bakoitzaren egoera aztertuko da, sektore nagusietako kontsumo energetikoak aztertuko dira.


Ondorengo taulan sektore nagusietako kontsumo energetikoak azter litezke. Industria kontsumo energetiko handiena duen sektorea da, eskualdeko erabateko kontsumo energetikoaren %68arekin, jarraian zerbitzu sektorea dago %25arekin eta azkenik etxebizitza sektorea kontsumoaren %6arekin.

6. taula: Eskualdeko kontsumo energetikoen eboluzioa sektoreka (MWh)

	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	
Industria/Industria	1.024.055	69,5	958.679	67,5	902.209	66,2	961.340	68,1	992.687	68,4	-3,1%
Zerbitzuak/Servicios	352.177	23,9	358.017	25,2	357.955	26,3	357.052	25,3	365.467	25,2	3,8%
Etxebizitza/Residencial	97.968	6,6	103.287	7,3	102.244	7,5	92.264	6,5	93.935	6,5	-4,1%
Guztira/Total	1.474.200	100	1.419.982	100	1.362.409	100	1.410.657	100	1.452.089	100	-1,5%

Iturria: EEEaren datuen extrapolaketan eta Iberdrola eta EDP distribuidoren datu errealetan oinarritua.

9. grafikoa: Eskualdeko kontsumo energetikoen eboluzioa sektoreka (MWh)




Era berean, 7. taulan, sektore bakoitzak 2015 urtean kontsumitutako energia iturri desberdinak aztertzen dira, honela, energia bakoitzak sektore bakoitzean duen pisua ikus dezakegu.

7. taula: 2015eko sektore bakoitzaren kontsumo energetikoa energia iturriko (MWh)

	Ikatza eta derib. Carbón y deriv.		Petrolio eta der. Petróleo y deriv.		Gas naturala Gas natural		E. eratorriak E. derivadas		E. berriztagarriak E. renovables		E. elektrikoa E. eléctrica		GUZTIRA TOTAL	
	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%	MWh	%
Industria/Industria	4.637	0,5	29.693	3,0	335.690	33,8	213	0,0	32.756	3,3	589.698	59,4	992.687	100
Zerbitzuak/Servicios	0	0,0	298.081	81,6	21.482	5,9	0	0,0	12.167	3,3	33.737	9,2	365.467	100
Etxebizitza/Residencial	0	0,0	8.253	8,8	53.187	56,6	0	0,0	4.722	5,0	27.773	29,6	93.935	100
Guztira/Total	4.637	0,3	336.027	23,1	410.359	28,3	213	0,0	49.645	3,4	651.208	44,8	1.452.089	100

10. grafikoa: 2015eko sektore bakoitzaren kontsumo energetikoa energia iturriko (MWh)




Jarraian sektore bakoitzak egun Urola Garaiko eskualdean duen egoera azaltzen da.

INDUSTRIA SEKTOREA

Urola Garaiko eskualdean industriak pisu handiadu, sektore metalurgikoa delarik zabalduena eskualdean. Urretxuko industria poligonoan sektoreko enpresa handiei zerbitzua ematen dien enpresa auxiliarrak daude.

Industriak poligono industrialetan daude bilduta gehien bat, udalerrietako gunerresidentzialetatik oso hurbil.

3. Irudia: Industria gunek Urola Garaia eskualdean.




Iturria : Aizkorpe GOOGLE EATRH

2008az geroztik industria sektorea krisi ekonomikoa pairatzen ari da, enpresa batzuen itxiera eta

ekoizpen murrizketak eraginaz, kontsumo energetikoan nabarmenki eraginez. 6. taulan ikus daitekeenez energia kontsumoaren eboluzioa beherakorra izan da industrian 2013rarte krisiaren eraginez, 2014-2015 urteetan kontsumoak berriz igotzen hasi dira.

Aipamen berezia merezi du ARCELOR enpresaren kasuak, Zumarragako udalerrian kokatua. Enpresa honek eskualdeko eta udalerriko kontsumo energetikoan pisu handia du, eskualdean industria sektoreko kontsumo energetikoaren %81 konntsumitzen duelarik. Mundu mailako krisi metalurgikoak bere itxiera ekarri du 2016 urtean, eskualderako kolpe sozial eta ekonomiko latza suposatuz. Enpresa honen itxierak ondorengo urteetako erabateko kontsumo energetikoen portzentaie eragingo die. Izan ere, 2015ean industriako kontsumo elektrikoaren %59 eta gas naturalaren %34 kontsumitzen zituen enpresak. 11. grafikoan kontsumo elektrikoaren barruan enpresaren itxierak izan duen eragina ikus liteke.

11. Grafikoa: Kontsumo elektrikoa 2016 urteko lehen seihilekoan (KWh)



Iturria: Iberdrola distribución

Gaur egun laguntza eta araudi desberdinak daude aurrezpen energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena bultzatzeko industrian.

Zentzu honetan, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak, 2012/27/UE Europar Parlamentuko Kontseiluak 2012ko urriaren 25ean onartutako zuzentaraua transposizionatzen da. Errege Dekretu honek enpresa handietan Gestio Energetiko Sistemak ezartzeko betebeharra finkatzen du, UNE-EN ISO 50001:2011 arauan oinarritzen. Arau honek Gestio Energetiko Sistemak izan beharreko ezaugarriak finkatzen ditu, etengabeko hobekuntzak gauzatzeko eta erakundeeen errendimendu energetikoa sistematikoki hobetzeko. Lehen faseak gutxienez instalakuntzaren %80a aztertzen duen auditoria energetikoa egitera behartzen ditu 2016 urtea bukatu aurretik.

Gestio Energetiko Sistema hobekuntza kontinuo ziklo batean oinarritzen da eta abiapuntu bezala audiotretza energetikoan lortutako datuak daude. Hauen bitzartez hobekuntza energetikoak egiteko neurriak, exekuzio egutegia eta aurrera eramandako neurrien inpaktua neurtzeko indikadoreak zehazten dira.

Eusko Jaurlaritzaren euskadiko 3E2030 estrategia energetikoa zehazten duenaren arabera Jaurlaritza bera eta Foru Aldundia izango dira industria sektorean aurrezpen energetikoa bultzatzearen


arduradunak. Urtero izan ohi dira erakunde publikoek bultzatutako dirulaguntzak industriaren eraginkortasun energetikoa bultzatzeko.

ZERBITZU SEKTOREA

Sektore honek barneratzen ditu bere baitan bai erakunde publikoak, komertzioa, hostalaritza, irakaskuntza, garraioak, e.a.

Aipagarria da zerbitzu sektorean kontsumitzen dela petroliotik eratorritako (Gasolina, gasoleoa, fueloila) energien %88a eskualde mailan. EEE eskuragarri jarritako datuen arabera, 2015 urtean zerbitzu sektorean kontsumitutako petroliotik eratorritako energiaren %99a garraioan kontsumitu da, bai pribatuan, publikoan eta merkantzienan. 3E2030 plan estrategikoak esaten duenaren arabera garraio sektorean kontsumitutako energiaren %95a errepideetako kontsumoari dagokio.

12. grafikoa: Garraio sektoreko kontsumo energetikoa



Iturria: 3E2030

DGT argitaratutako datuen arabera, eskualdeko parke mobila 11.446 ibilgailu daude eskualdean kamioi eta furgonetak kontutan izan gabe. Hauek isuritako NEG 34.012 t CO₂ dira, 198,10 g CO₂/km isuri mix media izanik hauei loturiko kontsumo energetikoa 127.386 MWh dela ondorioztatzen da, %43a, gainontzeko energia kontsumoa merkantzien garraiotik, garraio publikotik eta beste aktibitate batzuetatik eratorria dela ulertzen da.

Sektore honen barnean dauden beste sektore batzuk, instalakuntza publikoak, komertzioa, hostalaritza e.a. dira, hauek orokorrean energia elektriko eta gas natural kontsumitzaileak izan ohi dira. Elektrizitateak eta gas naturalak sektoreko kontsumo energetikoaren %9 eta %6 suposatzen dute, kontsumo txikia petroliotik eratorritakoarekin alderatuz gero.

ETXEBIZITZA SEKTOREA

Urola Garaiko eskualdean 12.193 etxebizitza daude herri desberdinetan banatuak, ondorengo eran:

8. taula:Urola Garaia eskualdeko etxebizitza kopurua


Udalerría	Etxebizitza kopurua
Zumarraga	4.718
Legazpi	4.105
Urretxu	3.024
Ezkio-Itsaso	346
GUZTIRA	12.193

Iturria: EUSTAT "Viviendas de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales según tipo."

Etxebizitzaren kontsumo energetikoan gehien eragiten duten faktoreen artean ondorengoak daude:

1. **Gune klimatikoa:** hiru gune klimatiko bereizten dira. Gune hotzean kokatutako etxebizitzek behar energetiko handiagoak dituzte bitarteko guneak baino, eta era berean, hauek kostaldekoak baino handiagoa dute. Eskualdea bitarteko guenak kokatzen da.

4. Irudia: Euskal Autonomia Erkidegoaren banaketa gune klimatikoetan.



Iturria :EEE

2. **Isolamendu maila:** orokorrean, zenbat eta zaharragoa etxebizitza, ezaugarri okerragoak ditu isolamendu termikoak, beraz, bero galera handiagoak. EUSTATen datuen arabera eskualdeko etxebizitzaren %62,5a 1980 urtea baino lehenago eraikitakoa da, garai hontan eraikuntzak ez zuten begiesten eraikuntzen isolamendu termikoa.
3. **Biztanle kopurua:** zenbat eta biztanle gutxiago izan etxebizitzan, orduan eta behar energetiko handiagoak ditu. Urola Garaiko eskualdean etxebizitzaren batz besteko biztanle kopuru 2,1 pertsonakoa da.
4. **Etxebizitza azalera:** zenbat eta azalera handiagoa, behar energetiko handiagoak. EEE datuen arabera etxebizitzaren batz besteko azalera 87m²koa da.
5. **Erosahalmena / energia prezioa:** krisiaren haserarekin familien erosahalmena murriztua ikusi da energiaren prezioa garestitu egin den bitartean, pobrezia energetikoa ugartuz.
6. **Etzetresnen errendimntua:** kontsumo energetikoa aldakorra da etxebizitzetako instalakuntzen eta ekipoen erabilpen eta eraginkortasunaren arabera.

Isolamendu termikoarekin batera, berogailu sistemak eta honen erabilpen aproposak asko baldintzatzen du eraikuntzaren eraginkortasun energetikoa eta konfort termikoa. Euskal etxebizitza gehieneak (%91) berogailu sistema bat dute, zentrala, banakakoa edo puntuala izan daitekeena. Kalefazio zentralaren kasuan, instalakuntza bera etxebizitza bat baino gehiagoko eraikuntza batek edo gehiagok banatzen dute, banakako instalakuntzetan etxebizitza bakarrarena den bitartean. Sistema puntualak aparatu mugikor edo finko batzuek osatzen dira, hauek gelaren baten edo denentzako tenperatura igotzeko erabiltzen dira, radiadore elektriko mugikorak barne.

Urola Garaiko eskualdean dauden kalefazio sistema desberdinen portzentaiak ondorengoak dira:

9. taula: Urola Garaia eskualdeko etxebizitzetan instalatutako kalefazio sistemak


Kalefazio sistema %			
Udalerría	Zentrala	Banakakoa	Puntuala
Zumarraga	2,4%	75,9%	19,4%
Legazpi	16,9%	67,2%	13,6%
Urretxu	11,2%	75,5%	9,4%
Ezkio-Itsaso	-	64,7%	32,3%

Iturria : EUSTAT "Viviendas de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales según equipamientos."

Ikus daitekeen bezala, Urola Garaian, kalefazio sistema nagusia banakakoa da instalakuntzen %70arekin.

Bestalde, etxebizitza baten barnean energia kontsumitzaile handienak etxetresnak dira %60arekin sukldeak jarraituta %13, argiztapenak %10, kalefazioak %9 eta ur beroak %7.

13. grafikoa: Elektrizitatearen amaierako kontsumoa etxebizitzetako erabilpenaren arabera



Iturria : EEE

ESKUALDEKO NEG ISURIAK SEKTOREKA



Jarraian, sektore nagusiek eragiten dituzten NEG isurien deskribapena egingo da.

Ondorengo taulan, 2015ean eskualdean isuri gehien eragiten dituen sektorea industria dela ikus liteke %72,4 arekin, zerbituz sektorea dago ondoren %22 arekin, lehen esan bezala garraio sektorearen eraginez. Azkeneik etxebizitza sektorea dago eskualdeko NEG isurien %5 arekin.

2011 eta 2015 urte tarteko NEG isuriak aztertuz gero %7,4ko igoera nabari da, zerbitzu sektoreen %8ko igoerak eta industri sektorearen %7,7ko igoerak bultzatua. Igoera hau estatuko errekupeazio ekonomikoaren ondorioz gauzatu da, industri ekoizpenaren eta merkantzien garraioaren igoerak bultzatua. Beste faktore garrantzitsu bat mix elektrikoaren faktorearen balioaren igoera da.

10. taula: Eskualdeko erabateko CO₂ isurien eboluzioa sektoreka


	2011		2012		2013		2014		2015		Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%	
Industria/Industria	291.062	72,2	279.372,12	70,8	267.446,79	69,5	287.032,53	71,3	313.597	72,4	7,7%
Zerbitzuak/Servicios	88.243	21,9	90.356,71	22,9	92.598,29	24,1	92.605,56	23,0	95.335	22,0	8,0%
Etxebizitza/Residencial	23.861	5,9	25.083,92	6,4	24.849,77	6,5	22.924,14	5,7	23.999	5,5	0,6%
Guztira/Total	403.167	100	394.812,75	100	384.894,85	100	402.562,22	100	432.931	100	7,4%

14. grafikoa: Eskualdeko erabateko CO₂ isurien eboluzioa sektoreka

15. grafikoa: Eskualdeko erabateko CO₂ isurien eboluzioa


11. taulan sektoreka 2015 urtean ikus ditzakegun NEG isurietan industrian elektrizitateak du pisurik handiena, zerbitzuen sektorean petroliotik eratorritako energiak du pisurik handiena eta etxebizitzaren setorean elektrizitateak eta gas naturalak.

11. taula: Eskualdeko erabateko CO₂ isurien eboluzioa sektoreka eta energia iturrika.

	Ikatza eta derib. Carbón y deriv.		Petrolio eta der. Petróleo y deriv.		Gas naturala Gas natural		E. eratorriak E. derivadas		E. berriztagarriak E. renovables		E. elektrikoa E. eléctrica		GUZTIRA TOTAL	
	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%	t	%
Industria/Industria	2.189	0,7	7.720	2,5	67.809	21,6	0	0,0	0	0,0	235.879	75,2	313.597	100
Zerbitzuak/Servicios	0	0,0	77.501	81,3	4.339	4,6	0	0,0	0	0,0	13.495	14,2	95.335	100
Etxebizitza/Residencial	0	0,0	2.146	8,9	10.744	44,8	0	0,0	0	0,0	11.109	46,3	23.999	100
Guztira/Total	2.189	0,5	87.367	20,2	82.892	19,1	0	0,0	0	0,0	260.483	60,2	432.931	100

16. grafikoa: Eskualdeko erabateko CO₂ isurien eboluzioa sektoreka eta energia iturrika.


3 ESKUALDEKO MASA BEGETALAREN HUSTUBIDE GAITASUNA

Atal honetan Urola Garaia eskualdeko masa begetalaren hustubide gaitasuna (CO₂a xurgatzeko) aztertzen da. Azterketa honetan bizirik dagoen biomasaren hustubide gaitasuna izan da kontutan, bai aereoza zein lurrazpikoa, egur hil, hondakin eta lurreko materia organikoaren hustubide gaitasuna ez da izan kontutan. Izan ere, biomasa bizia da finkatutako karbonoaren eta denbora tarte batean eskualde mailan honen bariazio estimazio egokia egiteko zatiki bakarra.

Kalkuluetan kontutan izateko eskualdeko masa begetalaren identifikazioa egiteko informazioa Udalsarea21-en kalkulu programatik lortu da, bai masa mota eta hauen hustubide gaitasun konbertsio faktorea.

Jarraian eskualdeko biomasa eta beraren hustubide gaitasuna zehazten dira CO₂ toneladatan.

12. taula: Karbono hustubideek xurgatutako CO₂a

KARBONO HUSTUBIDEEK XURGATUTAKO CO ₂ A		
HEKTAREA		HUSTUBIDEA (t CO ₂)
Radiata pinua	2.867	654.252
Basapinua	31	5.790
Pinaster pinua	10	1.563
Larizio pinua	1.126	195.462
Pagoa	522	140.366
Artea	-	-
Erkametza	-	-
Kandudun haritza	452	163.312
Ametza	18	4.314
Haritz amerikarra	6	1.552
Eukalipto	-	-
Alertzea	583	137.652
Chamaeciparis	3	1.077
Pseudotsuga	188	32.033
Bestelako koniferak	4	694
Bestelako hostozabalak	858	310.004
GUZTIRA		1.648.072

Iturria : Udalsarea21

Ondorengo kalkulua egiteko karbono hustubideei loturiko konbertsio faktoreak erabili dira.

13. taula: Karbono hustubideei loturiko konbertsio faktoreak

Karbono hustubideei loturiko konbertsio faktoreak	
Metaketa faktorea	t CO₂ xurgatu/ha
Radiata pinua	228,24
Basapinua	186,76
Pinaster pinua	156,33
Larizio pinua	173,59
Pagoa	268,90
Artea	60,52
Erkametza	96,17
Kandudun haritza	361,31
Ametza	239,64
Haritz amerikarra	258,72
Eukalipto	203,06
Alertzea	236,11
Chamaeciparis	358,85
Pseudotsuga	170,39
Bestelako koniferak	173,59
Bestelako hostozabalak	361,31

Iturria : Udalsarea21

Urola Garaia eskualdeko masa begetalaren hustubide gaitasuna ondorengo da **1.648.072 tCO₂/urte**.

4 UROLA GARAI ESKUALDEKO KARBONOAREN BALANTZE NETOA

2015 urteko eskualdeko Karbono Balantze Netoaren kalkulurako eskualdeko NEG isuri datuak (karbono aztarna) eta eskualdeko hustubideek (masa forestala) xurgatutako isuriaren datuak gurutzatu behar dira, aurreko atalean kalkulatu ditugunak urte honetarako.

14. taula: Urola Garaia eskualdeko karbono balantze netoa

	NEG isuria (CO ₂ tonelada)	Karbono hustubidea* (xurgatutako CO ₂ tonelada)	BALANCE NETO DE EMISIONES (toneladas CO ₂)
EPE Esparrua (industria eta lehen sektorea barne)	432.931	-1.648.072	-1.215.141
EPE Esparrua (industria eta lehen sektorea kanpo)	119.334	-1.648.072	-1.528.738

* ISO 14064 arauak finkatzen duen bezala, aparte dokumentatu behar da NEG xurgaketa hustubideen bitartez.

Positibitate klimatikoa aipatzen da sortutako NEG isuriak hustubideek xurgatutakoak baina murriztagoak direnean. Gure kasuan, bi baldintzetan sortutako NEG isuriak xurgatutakoak baina murriztagoak dira.

5 MURRIZKETA ESTRATEGIA ETA JARDUERA ESPARRUA

5.1 EPE JARDUERA ESPARRUA

Urola Garaiko 2015eko NEG isurien %28ari aplikatzen zaio EPE. Lehenago aipatu bezala industria sektorea eta lehen sektorea kanpo geratzen dira, NEG isurien %72a suposatzen duelarik.

15. taula: CO₂ isurien eboluzioa EPE esparruan sektoreka (tonelada)

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
	t	t	t	t	t	
Zerbitzuak/Servicios	88.243	90.357	92.598	92.606	95.335	8,0%
Etxebizitza/Residencial	23.861	25.084	24.850	22.924	23.999	0,6%
Guztira/Total	112.104	115.441	117.448	115.530	119.334	6,4%

16. taula: CO₂ isurien eboluzioa EPE esparruan per kapitako (tonelada)

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldakuntza 11-15 / Variación 11-15
Isurtzeak/Emisiones	112.104	115.441	117.448	115.530	119.334	6,4%
Biztanleak /Población	26.230	26.215	26.187	26.057	25.969	-0,99%
Guztira/Total	4,27	4,40	4,48	4,43	4,60	7,5%

Euskadiko batz bestekoa 2015 urtean 4,96 tCO₂/biztanleko izan da.

5.2 EPE-AREN HELBURUAK

Ekintza esparruaren eta isurien inbentario datuen arabera, Urola Garaiko EPE eskualdeko isurien %28an eragiten du. Zentzu honetan, erreferentzia urte bezala 2011 urtea hartzen da, 2025urterako gutxienez **28.026 t. CO₂ murriztu** behar direlarik 3E2030 planean ezartzen den %25eko murrizketa marka lortzeko, **urte hartako isuriak 84.078 t. CO₂ azpitik kokatuaz.**

6 EKINTZA PLANA

6.1 EKINTZA PLANAREN EGITURA

EPEko esparruan eskualdeko inbentario eta diagnosi fasean burututako isurien proiektzioan, NEG minimizazioa aurrera eramateko ekintzen estrategia eta proposamena gauzatzen da.

EPEaren azken dokumentua jerarkikoki egituratzen da programa eta ekintza estrategikoetan, planean aurkeztutako proposamenen irakurketa eta ulermena errazteko fitxa moduan aurkezten dira ekintzak, egitura homogeneo batekin denontzat.

Ekintza Planaren ekintzen kalkulua egiteko garaian 2015eko kontsumoak hartu dira abiapuntutzat, izan ere asko izan dira aurrera eramandako aldaketak, eta kontsumoa nabarmenki ugartu da. Hau dela eta 2015 urtetik aurrera inplementatzeko ekintzak eguneratutako datuetan oinarriturik kuantifikatu behar dira.

Kalkuluak egiteko garaian energia elektrikoaren isuri faktore bezala 2015 urtekoa erabili dugu (0,4 t CO₂/MWh).

6.1.1 FITXEN EDUKIA

Ekintza kodigoa:

Ekintza bakoitza kodigo batekin identifikatua dago, bi azpikodigok osatzen dutena, hauek alor tematikoaren eta ekintza mekanismoaren inguruko informazioa ematen digute. Jarraian doan zenbakiak ekintza zerrendatzen du.

17. taula: EPEko ekintzen kodifikazio laburpen taula

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK ERAGITEN DUEN SEKTOREA		KODIGOA
ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	UDALA	UDAL BULEGOAK	1.1
		ARGIZTAPEN PUBLIKOA	1.2.
	ETXEBIZITZA SEKTOREA/ ZERBITZU SEKTOREA		1.3.
MUGIKORTASUNA	OROKORRA		2.0.
	UDAL FLOTA		2.1.
	ETXEBIZITZA SEKTOREA		2.2.
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	UDALA	UDAL BULEGOAK	3.1.
HONDAKINAK	ETXEBIZITZA SEKTOREA/ ZERBITZU SEKTOREA		4.1.

Estrategia ardatza:

EPE garatzeko sektore bakoitzean landu beharreko gaiak. Ardatz estrategiko hauek, aurreko taulan zehaztu den bezala ondorengoak dira: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA, MUGIKORTASUNA, ENERGIA BERRIZTAGARRIAK eta HONDAKINAK.

Ekintzak lantzen duen sektorea:

Eskualdeko ekintza posibleak lantzen dituen energia talde kontsumitzailea. Sektoreak ondorengoak dira: UDALA, ETXEBIZITZA SEKTOREA eta ZERBITZU SEKTOREA.

Ekintzaren izena:

Gauzatu beharreko ekintzaren izena zehazten da.

Lehentasuna:

Ekintzarren lehentasuna isurien murrizketak eta bere eraginkortasunak finkatzen dute, altua, ertaina edo baxua izan liteke.

Helburua:

Ekintzaren helburu zehatza finkatzen da.

Neurriaren deskribapena:

Gauzatu beharreko ekintzaren deskribapena egiten da bere oinarriak azalduaz.

Hedadura:

Ekintzak eragindako ekipamendu edo sektoreak.

Agente inplikatuak:

Hiritar taldeak, elkarteak edo beste talde inplikatu batzuek ekintzen inplementazioan parte hartzen dute.

Arduraduna:

Proposatutako ekintzen jarraipen eta inplementazioaz arduratzen diren pertsonak.

Bestelako planekin erlazioa:

Proposatutako ekintzarekin erlazionatutako plan, proiektu, azterketa e.a.

Egutegia eta periodikotasuna:

Neurria martxan jartzeko aurreikusten diren epeak zehazten ditu.

- 2017-2018: Epe motzean burutu beharreko ekintzak.

- 2018-2020: Epe ertainean burutu beharreko ekintzak.

- 2020-2025: Epe luzera burutu beharreko ekintzak.

Adierazlea:

Ekintzaren ondorioak ebaluatzea bideratzen duen adierazle zehatza.

Elementu eragilea:

Markatutako helburuen lorpena errezten duten elementuak.

Elementu eragile mota:

Garrantzitsuenak ordenantzak, aspektu fiskalak, aspektu ekonomikoak e.a. dira.

Elementu eragile arduraduna:

Elementu eragilea martxan jartzeaz eta honen jarraipena egiteaz arduratzen den eskualdeko sail edo arlo arduraduna.

Elementu eragile egutegia:

Elementu eragilearen martxa finkatzen duen egutegia.

Aurrezpen energetikoa (MWh / urte):

Ekintzari loturiko aurrezpen energetikoa finkatzen da. Energia termikoaren kasuan MWh PCI (Behe Berotze-ahalmena) erabiltzen da, erabateko aurrezpen energetikoa kalkulatzeko erraztuaz energia iturri desberdinen artean.

Kasu batzuetan, hondakin edo erregai motaren ordezkatzeko, baliteke ez egotea aurrezpen energetikorik.

Ekidindako isuriak (t. CO₂ / urte):

Ekintza aurrera eramatean aurreztuko den negutegi efektuko gasen isuriaren (CO₂eq) toneladen estimazioa. 2015 urteko isuri faktorea erabili da estimazioak egitean.

Kostua:

Ekintza aurrera eramateko egin beharreko inbertsioaren kostuaren hurbilketa da, ez da kontutan hartzen BEZ a.

Inbertsioaren kalkulua egiteko gutxi gora-beherako azterketa ekonomikoa egiten da, kontutan hartuaz EPE egiten den garaiko merkatuko kostuak barneratzen dituela inbertsioak.

Amortizazioa (urte):

Ekintza amortizatzeko igaro beharreko denbora. Kasu batzuetan, deskribapenean definituko da, eta amortizazio epea teknologia garbiago edo eraginkorrago bat erabiltzearen gainkostuaren diferentziaren amortizazioa zehaztuko da.

Energiaren prezioei dagokienez, beharrezkoak aurrezpen energetikoa zehazteko, azterketa egitean indarrean dauden tarifak erabili dira.

Energia berriagarri ekoizpena (MWh / urte):

Sarera konektatutako ekoizpen energetiko lokala bultzatzeko neurrietan ekoiztako energia baiesten da.

Kostu/ t. CO2:

EPEan denboran zehar lortutako NEG isurien murrizketaren eta hau gauzatzeko egin beharreko inbertsioaren arteko erlazioa da.

Aurrezpen ekonomikoa:

Neurria aurrera erematean eskualdeak aurreztuko duen zenbatekoa.

Finantzaketa:

Finantzaketa aukera desberdinak.

Kontzeptu energetikoa:


Aurrezpenaren helburu den energia kontsumitzen duen elementua.

Europarekin korrespondentzia:

Alkateen itunean(Convenant of Mayors) zehaztutako ekintzen sailkapenarekin duen korrespondentzia.

52. taula: EPE ekintzen kodifikazioa

Kodigoa ekintza bakoitzaren zenbakitzea da, honela A12/B16/SP/1 ekintzaren kodifikazioaren esanahia ondorengoa da:



6.2 EKINTZAK

Behin inbentarioaren azterketa eta diagnosa eginda EPE lantzen dituen sektoreetako NEG isurien murrizketa bultzatzeko ekintza sorta zehazten da. Proposamen onenak ikuspuntu energetiko eta ekonomikotik aztertutzen dira. Proposamena aurrera eremateko inbertsioaren batz besteko kalkulua egiten da eta amortizazioa epea ere, bere errentagarritasuna aztertzeko.

Inbertsioaren kalkulurako hurbilketa azterketa ekonomiko bat egiten da, kontuan izanda inbertsioan kontutan izandako kostuak EPE burutzen den garaiko edo urteko batzbesteko kostuetan oinarritzen dela.

Energiaren prezioei degokionez, kostu energetikoetan arabera prezioetan oinarritu da, datu hauek ez dauden kasuan, azterketa egin den momentuan zeuden tarifak izango dira kontuan.

6.1.2 EPE EKINTZEN ZERRENDIA

Jarraian proposatutako ekintza guztiak azaltzen dira, ardatz estrategikoaren eta lantzen duen sektorearen arabera ordenatuta.

1. ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

1.1 Udala – udal bulegoak

- 1.1.1 Udal eraikinetan auditoretza energetikoak eta ziurtagiri energetikak egin
- 1.1.2 (SMART) Kontsumo energetiko handiko instalakuntzen kontsumo energetikoen monitorizazioa
- 1.1.3 Udal bulegoetako argiztapenaren ordezkapena eranginkorrako batekin
- 1.1.4 Pasoko guneetan piztu-itzaliak automatizatzeko gailuen instalakuntza
- 1.1.5 Galdara ordezkapena, errendimendu handiagoko eta eranginkorrakengatik
- 1.1.6 Eraikinetako konsigna tenperatura neguan 21°Cra eta udan 26°Cra blokeatu
- 1.1.7 Urola Garaia eskualdeko udal eraikinen kanpo inguratzailea isolatu
- 1.1.8 Eskualde/udal mailako gestio energetiko sistema baten ezarpena eta gestio energetiko figuraren eraketa
- 1.1.9 Ingurugiro praktika honen gidaren lanketa udal ekipamenduetan eta udal langileei zuzenduriko sentsibilizazio kanpainak

1.2 Udala – Argiztapen publikoa

- 1.2.1 Deskarga teknologia duen argiztapena Led teknologikoarengatik ordezkatu
- 1.2.2 (SMART) Banda zabaleko puntuz puntuko telegestio sistema instalatu
- 1.2.3 Argiztapen mailaren azterketa eta honen ajustea behar den maila lortzeko

1.3 Etxebizitza sektorea/zerbitzuak

- 1.3.1 Led lanparak egungoengatik ordezkatzeko kanpaina informatiboa
- 1.3.2 Etxetresnak energetikoki eraginkorrakengatik ordezkatzearen eta hauen mantenuaren inguruko kanpaina informatiboa
- 1.3.3 Ohiko galdarak kondentsazio galdarengatik ordezkatzeko kanpaina informatiboa
- 1.3.4 Kristal sinpleko leihoak kristal bikoitzeko eta aroztegi eraginkorrakoko leihoengatik ordezkatzeko kanpaina informatiboa
- 1.3.5 Eraikinen kanpo inguratzailearen isolamendu udal ordenantza

- 1.3.6 Etxebizitzetako kontsumo elektriko eta klimatikoen monitorizazioaren inguruko kanpaina informatiboa

2. MUGIKORTASUNA

- 2.0 Egun dauden mugikortasun planetan proposaturiko ekintzen ezarpena.

2.1 Udala – Udal flota

- 2.1.1 Udal flotaren berriztatzea
- 2.1.2 Azpikontrataturako zerbitzuetan NEG isuri murritzeko ibilgailuen erabilpena sustatu

2.2 Etxebizitza sektorea

- 2.2.1 Udalerriko turismo parkea NEG isuri murritzeko ibilgailuekin berriztatu
- 2.2.2 Mugikortasun komunikazio ekintzak

3. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

3.1 Udala

- 3.1.1 Urola Garaia eskualdeko eraikinetan autokontsumorako energia elektrikoa ekoizteko panel solarren instalakuntza
- 3.1.2 Kalefakzio eta ur bero ekoizpenerako geotermia instalakuntzen ezarpena eraikuntza berriko edo birgaitze integraleko eraikinetan
- 3.1.3 Udal eraikinak gertu dauden guneeetan biomasa galdara bidez district heating sistemen ezarpena aztertu
- 3.1.4 Nekazaritza eta baso biomasaren azterketa helburu energetikoetarako

4. HONDAKINAK

4.1 Etxebizitza sektorea

- 4.1.1. Bilketa selektiboaren hobekuntza ekintza

7.2.2 EPE EKINTZA FITXAK

Jarraian planean zehaztutako ekintza guztiak azaltzen dira.

Aipatzekoa da ekintzetako batzuk jada aurrera erematen ari direla, hau “egutegia eta periodikotasuna” atalean zehazten da “egiten” zehaztapenarekin.

Zehaztu beharra dago Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologian (IKT-TIC) oinarrituriko proposatutako neurriak Smart City kontzeptua lortzera bideratuta daude, proposamenaren izenburuan **SMART** hitzarekin zehaztuko dira.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Smart City baten **ardatz nagusiak** dira, hirietan parte hartzen duten ondasun eta zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko elementuak transbersalki interkonektatuaz.

1.1.1	ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	UDALA Udal bulegoak
Udal eraikinetan auditoretza energetikoak eta ziurtagiri energetikoa egin		Lehentasuna: Altua
